

INDESA 2010 SL

2025EKO EKITALDIKO MEMORIA

1. OHARRA.- SOZINETATEAREN JARDUERA

Indesa 2010 SL sozietatea 2010eko abenduaren 23an eratu zen, denbora mugagaberako, eta 2011ko urtarilaren 1ean hasi zituen bere jarduerak.

Gasteizko Alaba Jeneralaren kaleko 10. zenbakiko 5. solairuan du egun sozietateak egoitza soziala.

Haren gizarte helburua ondokoa da:

"Kalitateko lan aukerak eta gizarte, ekonomia eta ingurumen aldetik iraunkorrak direnak sortzea Arabako ezinduentzat, laneratzea eta gizarteratzea lortzeko, betiere, enplegu zentro berezi gisa.

Sozietateak desgaitasunen bat duten pertsonen ohiko enpleguren bat eskura dezaten sustatuko du, eta, horri begira, egungo edo etorkizuneko legeriak horrexetarako bideratzen duen edozein jardura sustatuko du, bai eta pertsonentzako, gizartearentzako edo, oro har, industriarentzako zerbitzu jarduerak ere, batere mugarik gabe –helburu sozialean aipatutakoak izan ezik–, betiere desgaitasunen bat duten pertsonentzako enplegu bitartekotzat baliatu ahal badira. Bestalde, lankidetzan jardungo du enplegurako zerbitzu publikoekin, desgaitasunen bat duten pertsonak lanerako gaitu eta bideratzearen, eta bitartekari lanetan arituko da lanerako zailtasun handiak dituzten taldeei lana lortzeko, dela babestutako lanetan, dela ohiko lanetan.

Sozietateak bere helburua osatzen duten jarduerak estatutuetan jasotako araubide juridikoaren arabera egin beharko ditu, aurreko artikuluan aipaturiko administrazio publikoek edo botere esleiztaileek agintzen dizkieten neurrian, haien berezko bitarteko instrumentala eta zerbitzu teknikoa den aldetik. Jardura hauexek osatzen dute sozietatearen helburua:

- Pertsonentzako zerbitzuak: Egoitzetan garbiketa egin, arropa garbitu eta otorduak prestatzeko zerbitzua, eta gaur egun edo etorkizunean INDESA 2010 SLren helburuak betetzeko komenigarria den beste edozein jardura.*
- Gizartearentzako zerbitzuak: Eraikinak garbitzea, industria edo ospitaleetako arropa garbitzea, berdeguneak mantentzea, sukaldaritza eta gaur egun edo etorkizunean INDESA 2010 SLren helburuak betetzeko komenigarria den beste edozein jardura.*
- Industriarako zerbitzuak, oro har: Jardura espezializatuak edo industriak berezko dituenak, izan ekoizpen prozesuaren parte, edo izan jardura edo zerbitzu lagungarri, baina beharrezkoak direnak industria jardura osorik gauzatzeko. (Manipulatuak, mekanizatuak, muntaketak, salgaien erosketa, logistika, administrazioa, bilgarriak eta gaur egun edo etorkizunean Indesa 2010 SLren helburuak betetzeko komeni den beste edozein jardura).*

Beharrezko zentro eta instalazioak ditu jarduerok garatzeko.

Gaur egun dituen egitekoak gizarte helburuetan zehaztutakoak dira.

Jarduera horiek zuzenean edo legeak onartzen dituen beste modu batzuetan egin ahalko dira, edo xede antzekoa edo baliokidea duten beste erakunde batzuetan bazkide gisa parte hartuz.

Jardueraren bat egiteko legeak betekizun bereziak eskatzen baditu eta sozietateak ez baditu horiek betetzen, jarduera horiek sozietatearen xedetik baztertuko dira.

Sozietateak Arabako Lurralde Historikoko enplegu zentro bereziaren kalifikazioa du, eta foru administrazioaren zati da. Bitarteko propio instrumentaltzat eta zerbitzu teknikotzat jotzen dute sozietatea Arabako Foru Aldundiak, Arabako Batzar Nagusiek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Eusko Legebiltzarrak eta hala erabakitzen duten udalerrietako Toki Administrazioak, bai eta Sektore Publikoko araubide juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 86. artikuluan eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 4., 6.3., 31. eta 32. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako botere esleitaile diren erakundeekin lotutako erakunde, organismo eta entitateek ere.

Bestalde, 2018ko martxoaren 9an, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea sartu zen indarrean. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. Lege horretan, Administrazioaren “bitarteko propioa” deritzonaren, kudeaketa esleipenen edo “in house” izeneko teknikaren aplikazio praktikoaren erregulazio berri bat ezartzen da; orain, baliabide propioei egindako enkarguak deituko zaio, eta erakunde horiek bete beharreko eskakizunak areagotu egin dira, lehia askearen printzipioa kaltetu dezaketen zuzeneko esleipenak saihesteko. Ezarritako eskakizunen artean honako hauek daude: erakunde horiek “bitarteko propioak” izatea, egiten zaien enkargua betetzeko behar diren baliabide pertsonal eta material egokiak edukitzea, botere esleitzzailearen baimena edukitzea, enpresa pribatu batek partaidetzarik ez edukitzea eta Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorren 11/2020 Legearen berrogeigarren xedapen gehigarrian jasotako enkarguei bideratutako jardueren ehunekoaz ezarritakoa betetzea. Indesa 2010 SL sozietateak betetzen ditu betebeharrak Arabako Foru Aldundiaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta beren estatutuetan hala aurreikusita duten udalerrien toki administrazioen bitarteko propietzat hartua izateko.

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak erabaki zuen Indesa 2010 SLri Gizarte Ekimeneko Enplegu Zentro Bereziaren kalifikazio ofiziala ematea. Ondorioz, irabazteko xederik gabeko erakundea da.

2. OHARRA.- URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

a) Irudi zehatza

Kontabilitate erregistroetan oinarrituta lortzen dira urteko kontuak. 1514/2007 Errege Dekretuak, Kontabilitateko Plan Orokorra eta kontabilitate arloan nahitaezkoak diren gainerako lege xedapenak, kontabilitate arloan gaur egun indarrean daudenak, onartzen dituenak, jasotako kontabilitate printzipio eta balorazio irizpideekin bat etorritik egin dira, eta, beraz, ondarearen, finantza egoeraren eta ekitaldiko emaitzen irudi zehatza azaltzen dute, bai eta ondare garbian izan diren aldaketan eta eskudiru fluxuen egoeran jasotako fluxuena ere.

Sozietateko administratzaileek egin dituzte kontuak, eta Bazkideen Batzar Orokorrak onartu behar ditu. Inolako aldaketarik egin gabe onartuko direla uste da.

2025eko maiatzaren 26ko batzar orokorrean onetsi zituzten bazkideek 2024ko ekitaldiko kontuak.

b) Informazioa alderatzea

Alderatuak izan daitezten, ekitaldiko kopuruez gain, aurreko ekitaldiko kopuruak aurkezten dira, eta horiekin batera egoera balantzeko partidak, galera-irabazien kontuak, ondare garbiaren aldaketan egoera, eskudiru fluxuen egoera eta urteko kontuen memoria. Bi ekitaldietako kopuruak alderagarriak dira.

Urteko kontuak osatzen dituzten finantza egoerak 8/2014 Foru Dekretuak onetsitako ereduaren arabera aurkezten dira.

Legez beharturik dago sozietatea ekitaldi honetako kontuak auditatzeko eta beharturik egon zen aurreko ekitaldikoak auditatzeko.

c) Balioespenaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena

Funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa betez egin ditu sozietateak bere urteko kontuak; izan ere, ez da eman hurrengo ekitaldiko aktibo edo pasiboen balioan aldaketa esanguratsurik eragingo duen arrisku garrantzitsurik.

Erantsitako urteko kontuetan, inoiz, zuzendaritzak egindako zenbatespenak erabili dira aktibo, pasibo, diru sarrera, gastu eta konpromiso batzuk zenbatzeko. Aztertutako gertakarien kontuak egitean erabilgarri zegoen informaziorik onenarekin egin dira zenbatespen horiek; baina gerta daiteke hurrengo ekitaldietan aldatu beharra dakarten gertakariak izatea eta, orduan, zenbatespen aldaketaren ondorioak onartu behar izatea. Zenbatespenek, funtsean, honako kontu hauei eragiten diete:

- Aktibo material eta ukiezinen bizitza erabilgarria.
- Emandako dirulaguntzen emaitzei aplikatzea.
- Sortutako ustiapen dirulaguntzen zenbatespena.
- Merkataritza kredituen balioaren narriadura.

d) Akatsen zuzenketa

2024ko ekitaldian, aurreko ekitaldietako gastuen akatsen zuzenketen ondoriozko doikuntzak egin ziren, eta borondatezko erreserben kontuari 47.257,31 euro gehitu zitzaizkion.

2025eko ekitaldian, aurreko ekitaldietako gastuen akatsen zuzenketen ondoriozko doikuntzak egin dira, eta borondatezko erreserben kontuari 203.654,77 euro gehitu zaizkio.

e) Aldaketak kontabilitate irizpideetan

Aurtengo eta iaizko ekitaldian zehar ez da kontabilitate irizpideetan garrantzizko aldaketarik egin, aurreko ekitaldiarekin erkatuz gero.

f) Partidak taldekatzea

Urteko kontuek ez dute jasotzen balantzean, galera-irabazien kontuan, ondare garbiaren aldaketen egoeran edo eskudiru fluxuen egoeran taldekatu behar izan den inongo partidarik.

g) Zenbait partidatan jasotako elementuak

Ez da aurkeztu partida bitan edo gehiagotan erregistratutako ondare elementurik.

h) Garrantzi erlatiboa

Finantza egoeretako partidei buruz eta beste gai batzuei buruz memoria honetan banakatu beharreko informazioa zehaztean, sozietateak garrantzi erlatiboa hartu du kontuan, Kontabilitateko Plan Orokorraren kontzeptu esparruaren arabera.

3. OHARRA.- EMAITZAK APLIKATZEA

Hona hemen administratzaileek Bazkideen Batzar Orokorrari egindako emaitzen banaketa proposamena:

	Ejercicio 2025	Ejercicio 2024
Base de Reparto	718.888,63	2.653.748,67
- Pérdidas y ganancias	718.888,63	1.319.798,97
- Reserva esp. Capitaliz. empresarial art. 51 2019	0,00	1.333.949,70
Distribución	718.888,63	2.653.748,67
- Reserva legal	71.888,86	131.979,00
- Reservas voluntarias	46.999,77	2.196.769,67
- Reserva esp. Fomento emprendimiento art. 53 2024	600.000,00	325.000,00

4. OHARRA.- ERREGISTRO ETA BALORAZIO ARAUAK

Hona hemen ekitaldian aplikatutako erregistro eta balorazio arauak:

a) Ibilgetu ukiezina-

Bizitza baliagarri mugatua duten aktibo ukiezinak modu sistematikoan amortizatzen dira, kalkulatu zaien bizitza baliagarriaren arabera eta horien hondar balioaren arabera. Amortizatzeko aplikatu diren metodoak eta aldiak ekitaldi bakoitza ixtean berrikusten dira eta, behar izanez gero, modu prospektiboan doitzen dira. Ekitaldia ixtean behintzat, narriatze aztarnarik dagoen aztertzen da; eta horrela izanez gero, berriro eskuratu daitezkeen zenbatekoak zenbatu eta egin beharreko balio zuzenketak egiten dira.

Hasierako azterketaren ostean, honako era honetan balioesten da: kostua ken amortizazio metatua eta, hala badagokio, ken narriadura dela-eta balioan egin beharreko zuzenketa.

Ibilgetu ukiezin bakoitzean aztertu eta zehazten da bizitza baliagarria mugatua edo mugagabea den.

Aplikazio informatikoak eskuratze kostuaren arabera baloratzen dira hasieran, eta modu linealean amortizatzen dira, % 10eko ehunekoa aplikatuta.

Sozietateak kontabilitatean jasotzen ditu aktibo horietan erregistratu diren galerak (halakorik egon bada), narriatzearen ondorioz gertatu direnak; horretarako, galera-irabazien kontuko "Narriatzearen ziozko galera garbiak" epigrafea erabiltzen da kontrapartida moduan. Ekitaldi honetan ez da onartu aktibo ukiezinaren ondoriozko "Narriatzearen ziozko galera garbirik".

Aplikazio informatikoen hornidura 16.266,46 eurokoa izan zen 2024ko ekitaldian, eta 14.590,81 eurokoa 2025ean.

Arabako Foru Aldundiaren jabetzako higiezinak doan erabiltzeko eskubidea baloratu da laga zen eguneko arrazoizko balioan. Modu linealean amortizatuko da lagapen epean. Ekitaldiko amortizazio zuzkidura 55.358,35 euro izan da (2024an 65.276,16 euro).

b) Ibilgetu materiala

Ondasun ibilgetu guztiak enpresaren ekoizpen normalaren zikloan erabiltzen dira edo erabiliko dira. Ez dago aktiborik ez salgai ez errentan. Beraz, ibilgetu materialaren kontuan sailkatzen dira haiek guztiak.

Euren eskuratze prezioaren edo ekoizpen kostuaren arabera balioesten dira, eta horrek barruan hartzen ditu,

prezioaren deskontu edo beherapen guztiak kendu ostean fakturatutako zenbatekoaz gainera, baita funtzionatzen hasi arte egiten diren gastu gehigarriak, zuzenean lotutako gastuak eta jasanarazi ezin diren zergak ere. Horri dagokionez, ibilgetua eskuratzean jasandako balio erantsiaren gaineko zerga ez da kengarria sozietatearentzat, eta ibilgetuaren balioaren zati bat da.

Sozietatea eratzean eta ondorengo kapital zabalkuntzetan erantsitako ibilgetuko elementuak, sozietatearen eratze eskrituraren eta kapital zabalkuntzen ondorioetarako, diruzkoa ez den ekarpen gisa esleitutako zenbatekoan balioesten dira.

Sozietateari erabiltzeko lagatako aktiboak ibilgetu material gisa erregistratzen dira, bete egiten direlako aktibo horiek ibilgetuan erregistratzeko ezarritako baldintzak, lagapen aldia eta erabilera baldintzak kontuan izanda.

Sozietateak ez du bere aktiboko ondasunak desegin, kendu edo birgaitzeko konpromisorik. Horregatik, ez da aktiboan zenbatetsi etorkizuneko obligazio horiek estaltzeko baliorik.

Erakundeak erabili, ustiatu edo saltzeko moduan egoteko urtebete baino gehiago behar duen ibilgetu materialaren kostuan sartzen ditu finantza gastuak, eskuratze, eraikitze edo ekoizteari zuzenean egotzi ahal zaien finantzazio berezi edo orokorrekin zerikusia dutenak.

Kontabilitate balio garbia zenbateko berreskuragarria baino handiagoa bada, ibilgetu materialaren elementu baten balioaren narriaduragatiko galera erregistratzen da. Arrazoizko balioaren (salmenta kostua kenduta) eta erabilerako balioaren arteko balio handiena da zenbateko berreskuragarria. Ez da gertatu inguruabarrik narriaduragatiko galera erregistratzea ondorio duenik.

Dagokion gastu kontuan jasoko dira sozietateak egindako obrak eta lanak direla-eta ekitaldian zehar gastatutakoak. Ekoizteko gaitasuna areagotzea edo ondasunen bizitza baliagarria luzatzea dakarten zabalkuntza eta hobekuntza kostuak aktiboan sartzen dira horren baliorik handien gisa.

Ibilgetu materialeko elementuen amortizazioa abian jartzeko eskuragarri daudenetik egiten da, hain zuzen, modu linealean balioetsitako bizitza erabilgarrian zehar. Hala, hondar balioa hutsa izango dela zenbatesten da. Hona hemen bizitza erabilgarriko urteak:

Inmovilizado	Coefficiente Anual	Vida Útil
- Construcciones	3,33%	30
- Instalaciones técnicas	10,00%	10
- Maquinaria	10,00%	10
- Utillaje	20,00%	5
- Mobiliario	10,00%	10
- Equipos informáticos	16,60%	7
- Elementos transporte	12,50%	8
- Otro Inmovilizado	6,66%	15

Amortizaziorako zuzkidura 679.989,07 eurokoa izan zen 2024an eta 717.218,52 eurokoa 2025ean.

c) Finantza tresnak

Erakundeak finantza tresnen kapituluaren erregistratuta dauzka enpresa batean finantza-aktibo bat eta, aldi berean, beste enpresa batean finantza-pasibo bat edo ondare tresna bat sortzen duten kontratuak. Beraz, honako hauek dira

finantza tresnak:

Finantza aktiboak:

- Ondare tresnak
- Merkataritza eragiketengatiko kredituak: askotariko bezeroak eta zordunak.
- Beste zor ez komertzial batzuk.

Finantza pasiboak:

- Merkataritza eragiketen ondoriozko zorrak: hainbat hornitzaile eta hartzekodun.
- Zorrak kreditu erakundeekin.
- Beste finantza pasibo batzuk.

c.1) Finantza aktiboak

Ondare tresnak

1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kontabilitate Plan Orokorra (9. araua, finantza tresnak eta kontabilitate estaldurak) aldatzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, taldeko enpresetako, talde anitzetako eta elkartuetako partaidetzak kostuko aktibo finantzarioen kategorian sailkatzen dira. Arrazoizko balioan balioztatzen dira, hau da, transakzioaren prezioan: emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean egozten zaizkion transakzio kostuak. Gero, kostuaren arabera baloratuko dira, narriaduragatik egindako balio zuzenketen zenbateko metatua kenduta.

Kostu amortizatuko finantza aktiboak

Partida honetan erregistratu dira merkataritzako eragiketen eta merkataritzakoak ez diren eragiketen ziozko kredituak, zenbateko jakin bat dutenak. Horietan sozietateak ordaindutakoa berreskuratzea aurreikusten da.

1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kontabilitate Plan Orokorra (9. araua, finantza tresnak eta kontabilitate estaldurak) aldatzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, amortizatutako kostuko aktibo finantzarioen kategorian sailkatzen dira.

Hasieran eta geroago, arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira: transakzioaren prezioa gehi zuzenean egotzi daitezkeen kostuak. Gero, kostuaren arabera baloratuko dira, narriaduragatik egindako balio zuzenketen zenbateko metatua kenduta.

Balio narriadura

Finantza aktiboek liburuetan duten balioaren zuzenketa galeren eta irabazien kontuaren kargura egiten da, narriaduraren ziozko galera badago. Narriaduraren zantzuak daudela usteko da baldin eta finantza aktiboen balio berreskuragarria liburuetan dutena baino gutxiagoa bada.

Narriaduraren ziozko galera ebaluatzeko, aldiz, saldo zordunen banakako azterketa egiten da, aspaldikoak direlako edo ezaugarri bereziak dituztelako kobratzeko arriskua dutenak hartuta.

Kostuko finantza aktiboak

Kategoria honetan sartutako inbertsioak kostuaren arabera baloratuko dira hasieran, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio kostuak. Hala badagokio, taldeko enpresei dagokienez, taldeko enpresen arteko eragiketei buruzko arauko 2. apartatuan jasotako irizpidea aplikatu beharko da, bai eta negozio konbinazioei buruzko arauan ezarritako konbinazioaren kostua zehazteko irizpideak ere.

Hala ere, taldeko, talde anitzeko edo elkartuko enpresa gisa sailkatu aurreko inbertsiorik balego, inbertsio horren kostutzat hartuko litzateke enpresak kalifikazio hori izan aurretik izan beharko lukeen kontabilitate balioa.

Hasierako balioespenean sartuko da lehentasunezko harpidetza eskubideen eta antzekoen zenbatekoa, halakorik eskuratu bada.

Ondoren, kategoria honetan sartutako ondare tresnak kostuaren arabera balioetsiko dira, narriaduragatik egindako balio zuzenketen zenbateko metatua kenduta, halakorik dagoenean.

Aktibo horiei balantzean baja emateagatik edo beste arrazoiren batengatik esleitu behar zaienean balioa, batez besteko kostu haztatuaren metodoa aplikatuko da, talde homogeneoen arabera, eta talde homogeneotzat hartuko dira eskubide berak dituzten balioak.

Ekitaldia ixtean, behintzat, egin behar diren balorazio zuzenketak egingo dira, baldin eta inbertsioen kontabilitate balioa berreskuragarria ez den ebidentzia objektiborik badago.

Arrazoizko balioko finantza aktiboak, ondare garbian aldaketak sortu dituztenak

Finantza aktibo bat kategoria honetan sartuko da, finantza aktiboaren kontratu baldintzek, zehaztutako datetan, eskudiru fluxuak sortzen dituztenean, eta fluxu horiek printzipalaren kobrantzak eta interesak baino ez direnean ordaintzeke dagoen printzipalaren zenbatekoaren gainean, eta ez bada mantentzen negoziatzeko eta ez badagokio kostu amortizatuko aktiboen kategorian sailkatzea.

Kategoria honetan sartutako aktibo finantzarioak arrazoizko balioan balioetsiko dira hasieran, eta kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa izango da, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio kostuak gehituta.

Hasierako balioespenean sartuko da lehentasunezko harpidetza eskubideen eta antzekoen zenbatekoa, halakorik eskuratu bada.

Ondoen, euren arrazoizko balioagatik baloratuko dira, besterentzean sor daitezkeen eskualdaketa kostuak kendu gabe. Arrazoizko balioan gertatzen diren aldaketak zuzenean erregistratuko dira ondare garbian, finantza aktiboak balantzean baja ematen duen edo narriatzen den arte; une horretan hala aitortutako zenbatekoa galera-irabazien kontura egotziko da.

Hala ere, atzerri monetako finantza aktibo monetarioen kanbio diferentzien ondoriozko balio narriaduragatiko balio zuzenketak eta galera-irabaziak, azken horri buruzko arauarekin bat etorritik, galera-irabazien kontuan erregistratuko dira.

Galera-irabazien kontuan erregistratuko dira, halaber, interesen zenbatekoa, interes tasa efektiboaren metodoaren arabera kalkulatuta, eta sortutako dibidenduen zenbatekoa.

Arrazoizko balioko finantza aktiboak, galera-irabazietan aldaketak sortu dituztenak

Finantza aktibo bat kategoria honetan sartuko da, finantza aktiboaren kontratu baldintzek, zehaztutako datetan, eskudiru fluxuak sortzen dituztenean, eta fluxu horiek printzipalaren kobrantzak eta interesak baino ez direnean ordaintzeke dagoen printzipalaren zenbatekoaren gainean, eta ez bada mantentzen negoziatzeko eta ez badagokio kostu amortizatuko aktiboen kategorian sailkatzea.

Kategoria honetan sartutako aktibo finantzarioak arrazoizko balioan balioetsiko dira hasieran, eta kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa izango da, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio kostuak gehituta.

Hasierako balioespenean sartuko da lehentasunezko harpidetza eskubideen eta antzekoen zenbatekoa, halakorik eskuratu bada.

Ondoen, euren arrazoizko balioagatik baloratuko dira, besterentzean sor daitezkeen eskualdaketa kostuak kendu gabe. Ekitaldiko galera-irabazien kontuari egotziko zaizkio arrazoizko balioan egiten diren aldaketak.

Epe laburreko finantza inbertsioak epemugara arte mantenduko dira, eta haien balorazioa ez da hasierako

balorazioarekiko desberdina izango.

c.2) Finantza pasiboak

Kostu amortizatuko finantza pasiboak

Finantza pasibo guztiak kostu amortizatuko finantza pasibo gisa sailkatzen dira.

Epigrafe honetan sartzen dira erosketen eta zerbitzu emateen zorrak, bai eta merkataritzakoak ez diren eragiketen zordunketak ere, sozietateak jasotako mailegu edo kreditu eragiketetatik datozen tresna eratorriak ez badira.

Zuzenean egotzi daitezkeen gastuak onartzen diren unean bertan edo geroago erregistratzen dira, arrazoizko balioan, hau da, transakzioaren prezioan. Balio hau kalkulatzeko, gainera, kontraprestazioaren balioa eranstean da. Irizpide hori aplikatzen da, zeren eta pasiboak epe laburrean likidatzea espero baita edo, epemuga luzekoetan, kontratuzko interes tasa finkoa ezarrita baitute.

d) Izakinak

Sozietatearen jardueretan erabilitako lehengaiak eta materialak eroste prezioaren arabera baloratzen dira, eta prezio horretan sartzen dira ordainagiriko prezioa eta BEZ jasanarazi eta ez kengarria. Narriadurarengatik hornidura funtsa ezartzen da narriadura edo balio galerarik antzematen bada.

e) Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk

Kutxako eskudirua eta bankuko kontu korranteak sartzen dira epigrafe honetan, baldin eta hurrengo baldintzak betetzen badituzte:

- Eskudiru bihur daitezke.
- Eskuratzean, gehienez hiru hilabeteko epemuga zuten.
- Balioa aldatzeko arrisku handirik ez dute.
- Sozietatearen diruzaintzako kudeaketa politika orokorrean sartzen dira.

f) Mozkinen gaineko zerga

Mozkinen gaineko zerga kontabilitate emaitzatik abiatuta kalkulatzen da, zerga oinarriarekiko doikuntzak aplikatuta. Zerga oinarria zehaztu ondoren, karga tasa aplikatzen da, eta ateratzen den kuota sozietateak eskubidez dituen kenkariak murrizten dute, zerga arruntaren ondoriozko gastua izanik, zerga geroratuaren ondoriozko gasturik agerian utzi gabe.

Bestalde, hurrengo ekitaldietan konpentsatu beharreko zerga oinarri negatiboetatik eratorritako zerga kredituaren eragina ez da erregistratu.

g) Aktiboen eta pasiboen sailkapena: korranteak eta ez korranteak

Balantzean, aktiboak eta pasiboak korranteak eta ez korranteak izan daitezke. Horretarako, aktiboak eta pasiboak korranteak izaten dira sozietatea ustiatzeko ziklo arruntari lotuta daudenean eta ziklo horretan zehar saltzea, kontsumitzea, gauzatzea edo likidatzea espero denean, edo horien epemuga, besterentzea edo gauzatzea beranduen urtebetean egitea espero denean. Aurrekoen bestelakoak dira. Negoziazio helburuarekin eusten zaie, edo eskudiru eta urtebetetik gorako aktibo likidoak dira.

Ustiapen ziklo arrunta urte batetik beherakoa da.

h) Bazkideen ekarpenak

Administrazio Publikoa osatzen duten bazkideek kontraprestaziorik gabe egiten dituzten finantza ekarpenak, sozietateak defizitak edo funtzionamendu gastu orokorrak finantzatzeko egiten dituen jarduerekin lotuta daudenak, ez dira sarreratzat hartzen, eta ondare garbia osatzen duten bazkideen ekarpenatzat hartzen dira.

i) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

Kapital dirulaguntzat hartzen dira bazkideek ibilgetua zuzenean finantzatzeko, hura finantzatu zuten maileguak amortizatze edo hura eskuratzeagatik zorrak kitatzeko egiten dituzten finantza ekarpenak.

Emandako zenbatekoaren arabera erregistratzen dira, ordaindutako kopuru bera da eta. Emaitzetan jasotzeko, diruz lagundutakoaren amortizazio prozesura egokitzen da.

Enplegu zentro berezi izateagatik lortutako ustiatze dirulaguntzak galera-irabazien kontuan egindako diru sarrera gisa erregistratzen dira, lortutako zenbatekoa kalkulatuz. Zenbateko hori diruz lagundutako gastu errealean eta dirulaguntzaren oinarri arauetan zehaztutako baldintzetan oinarrituta kalkulatzen da. Kalkulatutako zenbatekoaren

eta likidatutakoaren artean ez dago alde handirik.

Dirulaguntzaren araudiak eskatutako baldintza guztiak bete ditu sozietateak; beraz, ez dago itzuli behar izateko arriskurik.

j) Balio erantsiaren gaineko zerga

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 10eko 1/2015 Zerga Premiazko Dekretuaren arabera, ez daude zergaren mende sektore publikoko erakunde, organismo eta entitateek bitarteko propio pertsonifikatuei egindako enkarguen bidez emandako zerbitzuak, baldin eta administrazio publiko esleitzailaren bitarteko propio instrumentala badira. Dekretua indarrean jarri zenetik, xedapen horrek sozietateari eragiten dio; beraz, aplikagarria da hainbanaketa erregela, ondasun eta zerbitzu eskuratze arrunten eta inbertsioen balio erantsiaren gaineko zergan jasandako kuoten kenkaria aplikatzeko.

Ondorioz, inbertsioek eta ondasun eta zerbitzuen eskuratze arruntek berekin eraman behar dute sozietateak jasan duen eta kengarri ez duen BEZaren zenbatekoa.

k) Diru sarrerak eta gastuak

Diru sarrerak eta gastuak sortzapean printzipioarekin bat etorritik erregistratzen dira. Hau da, ordezkatzeko dituzten ondasun eta zerbitzuen korrante erreala gertatzen denean erregistratzen dira diru sarrerak eta gastuak, haietatik eratortzen den moneta edo finantza korrantea gorabehera.

Sozietateak bere jardueraren ohiko garapenagatik diru sarrerak aitortzen ditu erabiltzaileekin eta zordunekin konprometitutako zerbitzuen kontrola transferitzen denean. Une horretan, erakundeak diru sarrera baloratuko du, zerbitzu horien truke jasotzeko eskubidea izatea espero duen kontraprestazioak adierazten duen zenbatekoan.

Aintzatespena

Erakundeak kontratu batetik eratorritako diru sarrerak aitortzen ditu bezeroari zerbitzu hitzartuen gaineko kontrola (hau da, betebeharrak) transferitzen zaionean (edo egin ahala).

Zerbitzu baten kontrola (aktibo bat) ondare elementu horren erabilerari buruz erabat erabakitzeke eta gainerako onura guztiak lortzeko gaitasunari dagokio. Kontrolak barne hartzen du beste erakunde batzuek aktiboaren erabilerari buruz erabaki dezaten eta etekinak lor ditzaten eragozteko ahalmena.

Bete behar den betebeharrak bakoitzerako (ondasunak ematea edo zerbitzuak ematea), erakundeak kontratuaren hasieran erabakiko du hartutako konpromisoa denboran edo une jakin batean beteko den.

Denboran zehar betetzen diren konpromisoetatik (oro har, zerbitzuak ematek edo ondasunak saltzetik) eratorritako sarrerak kontratu betebeharrak erabat betetzeko aurrerapen mailaren arabera aitortzen dira, betiere erakundeak aurrerapen maila neurtzeko informazio fidagarria badu.

Sozietateak, hartutako konpromisoa betetzen duen heinean, berrikusi eta, behar izanez gero, aldatu egiten ditu aitortu beharreko diru sarreren zenbatespenak. Berrikuspen horiek behar izateak ez du esan nahi, nahitaez, eragiketaren amaiera edo emaitza ezin denik fidagarritasunez zenbatetsi.

Data jakin batean erakundea ez bada gai betebeharraren betetze maila arrazoiz neurtzeko (adibidez, kontratu baten lehen etapetan), nahiz eta konpromiso hori betetzeko egindako kostuak berreskuratzea espero duen, diru sarrerak eta dagokion kontraprestazioa baino ez dira aitortzen, ordura arte egindako kostuen zenbateko berean.

Zerbitzuak emateagatik diru sarrera gisa aintzatetsitako kreditu eskubidea kobratzeari buruzko zalantzak daudenean, narriaduraren ondoriozko galera narriaduraren balio zuzenketagatiko gastu gisa erregistratuko da, eta ez diru sarrera txikiago gisa.

Balorazioa

Zerbitzuak ematek datozen diru sarrera arruntak handik datorren jasotako edo jaso beharreko kontrapartidaren arrazoizko balioan baloratzen dira eta, kontrako ebidentziarik ezean, zordunari transferitu beharreko aktiboetarako adostutako prezioa da, hauek kenduta: prezioan edo erakundeak eman ditzakeen antzeko beste partidetan egindako deskontu edo beherapen ororen zenbatekoa, eta kredituen nominalari erantsitako interesak. Hala ere, urtebeteko edo gutxiagoko epemuga daukaten eta kontratu interesik ez duten merkataritzako kredituetarako erantsitako interesak barne hartu ahal izango dira, diru fluxuak ez eguneratzearen ondorioa nabarmena ez denean.

Ez dira diru sarreren barruan sartzen erakundeak hirugarrenei jasanarazi behar dizkien zerbitzuak emateko eragiketak zergapetzen dituzten zergak, hala nola balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak, ez eta hirugarrenen kontura jasotako zenbatekoak ere.

Sozietateak, sarreraren balorazioan, kontuan hartzen du kontraprestazio aldakorraren zenbatespen onena, baldin eta oso litekeena bada aitortutako diru sarreraren zenbatekoaren itzulketa esanguratsurik ez gertatzea, ondoren kontraprestazio horri lotutako ziurgabetasuna ebazten denean.

Arau orokorraren salbuespenez, lizentziak lagatzeko akordioekin lotutako kontraprestazio aldakorra, zeina aktibo horien salmentetan edo erabileran parte hartzeko modua baita, gertakari hauen ondorengoa denean (edo gertatu ahala) soilik aitortzen da:

- a) Salmenta edo ondorengo erabilera egiten bada; edo
- b) Erakundeak kontratuaren arabera bere gain hartzen duen betebeharra, zeinari kontraprestazio aldakor osoa edo haren zati bat esleitu baitzaio, betetzen bada (edo partzialki betetzen bada).

l) Lotura duten alderdien arteko transakzioetan erabilitako irizpideak

Eskainitako edo jasotako elementu eta zerbitzuak, eskualdaketa gai direnak, hasierako unean, arrazoizko balioaren arabera kontabilizatzen dira. Balio hori da transakzioek arautzen dituzten hitzarmen, erabaki edo kudeatzeko ardura emateetan zehaztutako transakzio balioa. Ezarritako prezioak eta hirugarren independenteekin egindako transakzioetan aplikatutakoak ez dira oso bestelakoak.

m) Hornidurak eta kontingentziak

Hornidura bat iraganeko gertaeren ondorioz sortutako pasibo bat da, gertakari horien zenbatekoaren edo mugaegunaren inguruan zalantza dagoenean sortzen dena. Egoera balantzearen pasiboan aitortzen dira, jasan beharreko obligazioaren egungo balioa hobeto estimatzeko.

Pasibo kontingenteak ezin dira behar besteko fidagarritasunez ebaluatu, eta gaur egun zalantzarriak diren egoeren bidez baino ezin dira baieztatu. Kasu honetan, informazioa memorian sartu da, eta kontzeptu horrengatik ez da pasiborik jaso.

n) Ingurumen izaerako ondare elementuak

Ingurumen jardueri lotutako aktiboak eskuratzeko sortutako kostuak ibilgetu inbertsioak dira.

Ingurumenarekin zerikusia duten ordainketak, inbertsioen bestelakoak, ekitaldiko gastu dira.

Ez da espero ingurumen alderdiei darizkien gertakizunak gertatzea.

5. OHARRA.- IBILGETU UKIEZINA

Hona hemen epigrafea eratzen duten kontuen xehetasuna eta mugimendua:

Coste	Aplicaciones Informáticas	Cesión de Uso de Activos	Total
Saldo Final (31.12.2023)	142.979,95	606.512,24	749.492,19
- Altas	6.746,42	0,00	6.746,42
- Bajas o tras pasos	0,00	0,00	0,00
Saldo Final (31.12.2024)	149.726,37	606.512,24	756.238,61
- Altas	9.529,09	0,00	9.529,09
- Bajas o tras pasos	0,00	0,00	0,00
Saldo Final (31.12.2025)	159.255,46	606.512,24	765.767,70
Amortización Acumulada	Aplicaciones Informáticas	Cesión de Uso de Activos	Total
Saldo Final (31.12.2023)	-103.395,51	-243.637,18	-347.032,69
- Altas	-16.266,46	-65.276,16	-81.542,62
- Bajas o tras pasos	0,00	0,00	0,00
Saldo Final (31.12.2024)	-119.661,97	-308.913,34	-428.575,31
- Altas	-14.590,81	-55.358,35	-69.949,16
- Bajas o tras pasos	0,00	0,00	0,00
Saldo Final (31.12.2025)	-134.257,78	-364.271,69	-498.529,47
SALDO NETO	25.007,68	242.240,55	267.248,23

Arabako Foru Aldundiak kontraprestaziorik gabe laga ditu aktibo hauek:

- Alaba Jeneralaren kaleko 10. zenbakiko 5. solairuan kokatutako lokalak (Gasteiz) eta eraikin berean dagoen aparkalekua, hamar urterako gehienez lagapen datatik aurrera (2020), bertan kokatu ahal izan ditzan bere zerbitzu zentral guztiak edo horietako batzuk. Lagapenari esleitutako balioa 475.357,38 euro da, eta obrak egin dira 59.714,05 euroan.
- Gasteizko Domingo Beltrán kaleko 2. zenbakian kokatuta dauden lokalak, hiru urterako lagapena egin zenetik (2021eko ekaina), dokumentuak digitalizatzeko jardura kokatu ahal izateko bertan. Lagapenari esleitutako balioa 60.000,00 euro da. Iraupen epea ondoz ondoko aldi berdinetan luzatu ahal izango da, lagapen hartzaileak hala eskatuz gero.
- Elizbarrutiko Apaizgaitegiko Latindarren Pabiloiaren bigarren solairuan dagoen 57 zenbakiko lokala, enpresa batzordeak eta sindikatu atalek erabiltzeko. Lagapenari esleitutako balioa 2.934,78 euro da, eta obrak eta ekipamenduak egin dira 8.506,03 euroan. Erabileraren lagapena 2030eko irailaren 30ean bukatuko da. Lokal hori Elizbarrutiko Apaizgaitegiak Arabako Foru Aldundiari errentan eman dio.

Guztiz amortizatuta daude informatika aplikazioak, 71.687,38 euroko balioarekin (40.883,49 euro aurreko ekitaldia ixtean).

6. OHARRA.- IBILGETU MATERIALA

Hona hemen ibilgetu materiala eratzen duten partiden xehetasuna eta mugimenduak:

Coste	Terrenos	Construcc.	Maquinaria	Otras Instalac.	Mobiliario	Equipos procesos Información	Elementos Transporte	Anticipos e inmov en curso	Total
Saldo Final (31.12.23)	108.286,73	8.357.116,59	4.559.115,88	538.484,69	282.132,16	110.082,01	355.110,98	0,00	14.310.329,04
- Aumentos	0,00	338.132,29	61.556,24	52.459,12	3.595,71	6.275,80	0,00	5.716,32	467.735,48
- Bajas o traspasos	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Saldo Final (31.12.24)	108.286,73	8.695.248,88	4.620.672,12	590.943,81	285.727,87	116.357,81	355.110,98	5.716,32	14.778.064,52
- Aumentos	0,00	0,00	493.450,06	130.738,23	21.646,86	26.460,86	217.243,79	25.607,06	915.146,86
- Bajas o traspasos	0,00	0,00	-103.667,48	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	-103.667,48
Saldo Final (31.12.25)	108.286,73	8.695.248,88	5.010.454,70	721.682,04	307.374,73	142.818,67	572.354,77	31.323,38	15.589.543,90
Amortización	Terrenos	Construcc.	Maquinaria	Otras Instalac.	Mobiliario	Equipos procesos Información	Elementos Transporte	Anticipos e inmov en curso	Total
Saldo Final (31.12.23)	0,00	-3.234.071,70	-2.958.787,70	-460.646,67	-229.129,05	-72.425,07	-205.512,27	0,00	-7.160.572,46
- Aumentos	0,00	-288.906,29	-287.918,84	-24.403,82	-17.732,72	-17.153,16	-43.874,24	0,00	-679.989,07
- Bajas o traspasos	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Saldo Final (31.12.24)	0,00	-3.522.977,99	-3.246.706,54	-485.050,49	-246.861,77	-89.578,23	-249.386,51	0,00	-7.840.561,53
- Aumentos	0,00	-298.632,13	-311.590,68	-35.033,60	-12.079,95	-17.225,32	-42.656,84	0,00	-717.218,52
- Bajas o traspasos	0,00	0,00	72.085,43	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	72.085,43
Saldo Final (31.12.25)	0,00	-3.821.610,12	-3.486.211,79	-520.084,09	-258.941,72	-106.803,55	-292.043,35	0,00	-8.485.694,62
TOTAL NETO	108.286,73	4.873.638,76	1.524.242,91	201.597,95	48.433,01	36.015,12	280.311,42	31.323,38	7.103.849,28

- Ibilgetu materialaren elementu guztiak sozietatearen jarduerari lotuta daude, eta ez daukate zama edo kargarik. Horrez gain, ez dago inguruabarrik ibilgetu material diren ondasunen erabilgarritasunari eragiten dionik.
- Ibilgetuko elementuak honako eragiketa hauen bidez txertatu dira:
 - Lursailak eta eraikinak, 4.383.427,91 euro egiten dutenak, Arabako Foru Aldundiak 2010ean, sozietatea eratzean, diruzkoa ez den ekarpen gisa.
 - Ondasun higigarriak, zenbait zentrotan daudenak, 526.461,00 euro egiten dutenak, Arabako Foru Aldundiak 2011n erabakitako eta 2012an hitzartutako kapital zabalkuntzaren ondorioz, diruzkoa ez den ekarpen gisa.
 - Eraikinak, 3.938.100,00 euro egiten dutenak, diruz besteko ekarpen gisa, 2013an onarturiko kapital zabalkuntzan Arabako Foru Aldundiak harpidetutako partaidetzak ordaintzeagatik. Gasteizko Lermendabide kaleko 1ean dagoen eraikinari buruz ari gara, zein garbitegi industrial gisa erabiltzen baita eta UE 426 zenbakiarekin inbentariatuta baitago Arabako Foru Aldundiaren ondasun eta eskubideen inbentarioan. Gasteizko Udalak Arabako Foru Aldundiari lagatako lurzati baten gainean eraikia dago hura, eta haren azaleraz laurogeita hemeretzi urtez gozatzeko eskubidea dauka aldundiak, lagapen eskritura egin zenetik. Aldundiak eraikina erabiltzeko eskubidea laga dio sozietateari 3.938.116,52 euroan, diruzkoa ez den ekarpen gisa, sozietatearen kapital zabalkuntzan Arabako Foru Aldundiak harpidetutako partaidetzen ordainketa gisa. Gasteizko Udalak Arabako Foru Aldundiari lagatako udal jabetzako lurzatiaren gainean, non eraikina altxatu baitzen, Aldundiak daukan azalera eskubideak irauten duen denbora berdinerako lagako zaio sozietateari

eraikina.

Lagapen egoerari eta iraupenari erreparatuz gero, ibilgetu materialaren kontuetan erregistratu da aktiboa.

- Gainerako elementuak sozietateak berak eskuratu ditu, eta zatirik esanguratsuen industria garbiketako lantegirako instalazioei dagokie.
- 2025eko ekitaldian sozietateak piezak lisatzeko sisteman sartzeko makina erosi du 228.686,15 eurotan, eta lurrun-galdara bat 88.904,02 eurotan; bi inbertsio horiek ikuztegi egin dira. 6 ibilgailu erosi dira Indesa 2010 SLren flota berritzeko: 217.243,79 euro.
- Guztiz amortizatutako elementuen zenbatekoa 1.442.656,01 euro zen 2024ko abenduaren 31n eta 1.598.386,75 euro 2025eko abenduaren 31n, honela banakatuta:

	31/12/2025	31/12/2024
- Construcciones	3.048,00	3.048,00
- Maquinaria y utillaje	715.817,85	647.558,03
- Otras instalaciones	403.505,83	394.178,90
- Mobiliario	213.242,50	180.106,75
- Equipos informaticos	95.338,70	73.242,53
- Elementos de transporte	167.433,87	144.521,80
TOTAL	1.598.386,75	1.442.656,01

- Arabako Foru Aldundiak itzuli beharrik gabeko 200.000,00 euroko dirulaguntza eman zuen aurreko ekitaldietan (ekitaldiaren itxieran osorik aplikatua), Jundizko industrialdeko garbiketa industrialeko lantegi gisa erabiltzeko eraikineko instalazioak egokitzeko lanak finantzatzeko. 2019an, 1.477.777,68 euroko finantza ekarpena egin zen (500.090,24 euroko saldo garbia ekitaldia ixtean), garbitegi industrialeko ataleko makinak eta instalazioak finantzatzeko 2012an sinatutako maileguak amortizatzeko.
- Zenbait baja izan dira ibilgetua saltzeagatik; guztira, emaitza negatiboa izan da: 11.582,05 euro.
- Sozietateak kontratatu duen aseguru polizak behar bezala estaltzen du ibilgetuko ondasunen balioa.

7. OHARRA.- FINANTZA TRESNAK

7.a) Finantza aktiboak

Hona hemen finantza aktiboen osagaiak 2025eko abenduaren 31n eta 2024ko abenduaren 31n:

Activos Financieros a Largo Plazo	31/12/2025	31/12/2024
- Instrumentos de patrimonio	11.852,48	11.852,48
- Fianzas	21.091,87	11.430,37
TOTAL	32.944,35	23.282,85
Activos Financieros a Corto Plazo	31/12/2025	31/12/2024
- Deudoras comerciales y otras cuentas a cobrar	4.023.465,17	3.196.486,97
- Inversiones financieras a corto plazo	20.953,79	2.130,13
TOTAL	4.044.418,96	3.198.617,10

Beste partaidetza batzuk

2013ko urtarrilaren 23an Arabako Foru Aldundiak Indesa 2010 SLri laga zizkion Garaia S. Coop. entitatean zeuzkan partaidetzak, guztira 11.852,48 euro.

Merkataritzako zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk

Hona hemen epigrafearen osagaiak 2024ko abenduaren 31n eta 2025eko abenduaren 31n:

	31/12/2025	31/12/2024
- Clientes por ventas y prestaciones de servicios	2.812.441,62	2.204.900,42
- Deudores varios	41.816,99	70.799,00
- Personal	4.045,02	301,15
- Administraciones Públicas	1.165.161,54	920.486,40
TOTAL	4.023.465,17	3.196.486,97

- "Bezeroen" saldoa honako kontzeptu hauek eratzen zuten:

	31/12/2025	31/12/2024
- Clientes por ventas y prestaciones de servicios	1.360.727,53	1.505.259,36
- Clientes empresas del grupo	1.451.714,09	699.641,06
TOTAL	2.812.441,62	2.204.900,42

Bezeroen saldo guztiak eurotan azaltzen dira. Haien guztien epemuga urtebetetik beherakoa da, ekitaldia ixten denetik aurrera.

- Taldearen enpresen eta bezeroen saldoaren barruan biltzen dira sozietateak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin zituen saldoak, merkataritza eragiketetan jatorri zutenak, eta, zehazkiago, bitarteko propioa izateagatik jasotako enkarguetan. Gainera, bitarteko propio izateagatik jasotako enkarguengatik beste erakunde batzuekin 823.078,43 euroko saldoak ditu.
- "Administrazio publikoak" partidako saldo zordunak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak emateke dituen dirulaguntzak hartzen ditu kontuan, guztira 795.914,43 euroko zenbatekoa egiten dutenak, eta kontuan hartzen du, halaber, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko saldo zorduna, 304.563,41 eurokoa.

Epe laburrerako inbertsio finantzarioak

Partida honetan hau jaso da:

	31/12/2025	31/12/2024
- Finanzas constituidas	20.953,79	2.130,13
TOTAL	20.953,79	2.130,13

Finantza aktiboen kategoriak

	Saldo a 31/12/2025	Activos financieros a valor razonable con cambios en Pérdidas y Ganancias	Activos a coste amortizado	Activos financieros a coste	Activos financieros a valor razonable con cambios en Patrimonio Neto
Instrumentos de patrimonio	11.852,48	0,00	0,00	11.852,48	0,00
Instrumentos financieros a largo plazo	11.430,37	0,00	21.091,87	0,00	0,00
Instrumentos financieros a corto plazo	4.044.418,96	0,00	4.044.418,96	0,00	0,00

7.b) Finantza pasiboak

Hona hemen finantza pasiboen osagaiak 2024ko abenduaren 31n eta 2025eko abenduaren 31n:

Pasivos Financieros No Corrientes	31/12/2025	31/12/2024
- Otros pasivos financieros	28.221,01	26.730,84
TOTAL	28.221,01	26.730,84
Pasivos Financieros Corrientes	31/12/2025	31/12/2024
- Otras Deudas	27.822,47	13.964,07
- Deudas con empresas del grupo	84.147,70	75.016,85
- Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar	2.337.352,58	1.837.361,88
TOTAL	2.449.322,75	1.926.342,80

Zorrak taldeko enpresekin

Sozietateak 84.147,70 euroko zorra zeukan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin (75.016,85 euro aurreko ekitaldiaren itxieran), aipatutako erakundeko langileek sozietateari 2025ean emandako zerbitzuengatik.

Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk

Partida hau honako kontzeptu hauen arabera banatu da:

	31/12/2025	31/12/2024
- Proveedores	437.462,19	415.858,04
- Acreedores	869.561,17	592.455,81
- Personal	669.245,78	415.892,16
- Administraciones Publicas	373.083,44	413.155,87
TOTAL	2.337.352,58	1.837.361,88

Epigrafe honetan jasotako zor guztien epemuga urtebetetik beherakoa da, ekitaldia ixten denetik aurrera.

Hornitzaileekin diren zorrak bat datoz zerbitzu eroste eta eskaintze eragiketek eta ibilgetu eskuratzek eragindako zorrekin.

Finantza pasiboen kategoriak

Hona hemen finantza pasiboak kategoriatan sailkatuta:

	Saldo a 31/12/2025	Pasivos financieros a coste amortizado	Pasivos financieros a valor razonable con cambios en la cuenta de pérdidas y ganancias
Instrumentos financieros a largo plazo	28.221,01	28.221,01	0,00
Instrumentos financieros a corto plazo	2.103.724,31	2.103.724,31	0,00

8. OHARRA.- IZAKINAK

Hona hemen partida hori kontzeptuka xehatuta:

	31/12/2025	31/12/2024
- Materias primas y otros aprovisionamientos	478.578,52	442.211,20
- Producto terminado	7.382,11	21.074,85
TOTAL	485.960,63	463.286,06

"Lehengaiak eta beste hornigai batzuk" kontzeptuak sozietateen jardueretan erabilitako lehengaien balioa jasotzen du.

9. OHARRA.- ESKUDIRUA ETA BESTE AKTIBO LIKIDO BALIOKIDE BATZUK

Sozietateak kontu korranteetan dituen saldoak jasotzen ditu epigrafe horrek.

10. OHARRA.- FUNTS PROPIOAK

Hona hemen funts propioen kontuek ekitaldian izandako bilakaera:

	31/12/2024				31/12/2025		
	Saldo Inicial	Altas	Bajas	Saldo Final	Altas	Bajas	Saldo Final
- Capital social	8.864.550,00	0,00	0,00	8.864.550,00	0,00	0,00	8.864.550,00
- Reserva legal	214.028,28	22.022,11	0,00	236.050,39	131.979,00	0,00	368.029,39
- Reservas voluntarias	2.048.443,69	509.777,01	0,00	2.558.220,70	2.426.202,02	-25.777,54	4.958.645,18
- Reservas especiales	1.791.284,95	0,00	-457.335,25	1.333.949,70	325.000,00	-1.333.949,74	324.999,96
- Resultados negs ej anteriores	-193.014,56	193.014,56	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
- Pérdidas y ganancias	220.221,12	1.319.798,97	-220.221,12	1.319.798,97	718.888,63	-1.319.798,97	718.888,63
TOTAL	12.945.513,48	2.044.612,65	-677.556,37	14.312.569,76	3.602.069,65	-2.679.526,25	15.235.113,16

Sozietatearen kapitala

Kapital soziala 177.291 akziok osatzen dute; bakoitzak 50,00 euroko balio nominala du. Akzioek, osorik harpidetu eta ordainduta, eskubide berberak jasotzen dituzte beren baitan.

Sozietatearen hasierako kapital soziala 4.400.000,00 euro izan zen, 50,00 euroko balio nominaleko 88.000 akziotan gauzatu zena, eta Arabako Foru Aldundiak ondasun higiezinaren ekarpena eginez hitzartu eta ordaindu zuena.

2012an Sozietatearen hasierako kapital soziala zabaldu eta beste 526.450,00 euro gehitu zitzaizkion. Horretarako, 50,00 euroko balio nominaleko 10.529 akzio jaulki ziren, Arabako Foru Aldundiak ondasun higigarrien ekarpena eginez hitzartu eta ordaindutakoak.

Sozietatearen Bazkideen Batzar Orokorrak, 2013ko apirilaren 25ean, kapital soziala zabaltzea erabaki eta beste 3.938.100,00 euro gehitu zitzaizkion. Horretarako, 50,00 euroko balio nominaleko 78.762 akzio jaulki ziren, Arabako Foru Aldundiak guztiz hitzartu eta ordaindutakoak. Diruzkoa izan ez zen ekarpenaren bidez egin zen ordainketa, Arabako Foru Aldundiak altxatutako eta garbitegi industrial gisa erabili beharreko eraikina epemugarik gabe lagata, zein 3.938.116,51 eurotan baloratu baitzen, 16,51 euro jaso zirelarik eskudirutan.

Arabako Foru Aldundia 177.163 partaidetzaren titularra da; Arabako Lurralde Historikoko hainbat udal 88 partaidetzaren titularrak dira, Arabako Batzar Nagusiak 20 partaidetzarenak, eta Eusko Jaurlaritza beste 20 partaidetzarena.

Legezko erreserba

Kapital Sozietateen Legearen arabera, legezko erreserba kapital sozialaren % 20 baino gehiago ez bada, ezin zaie banatu bazkideei, eta beste erreserba eskuragarririk eduki ezean bakarrik bideratu ahal izango da galeren konpentsaziora. Era berean, kapital soziala gehitutako % 10 gaingaitzen duen zatian gehitzeko erabili ahalko da erreserba hori.

Borondatezko erreserbak

Sozietateak berak nahi duen bezala erabil ditzake. Borondatezko erreserben kontuan honako mugimendu hauek erregistratu dira ekitaldian zehar:

- 1.333.949,70 euroko gehikuntza erreserba xedaezinetik intsuldatuta, enpresa-kapitalizazioa indartzeko, xedaezintasun aldia amaitutakoan.
- 862.819,97 euroko gehikuntza 2024ko ekitaldiko emaitzaren banaketaren ondorioz.
- 229.432,35 euroko gehikuntza akatsen zuzenketen doikuntzen ondorioz.
- -25.777,54 euroko murritzeta akatsen zuzenketen doikuntzen ondorioz.

Beste erreserba batzuk

Aurreko ekitaldietan, borondatezko erreserben kontutik 1.333.949,70 euro pasatu ziren erreserba kontu xedaezin batera enpresa kapitalizazioa sustatzeko (kontu horien arauketa: Sozietateen gaineko zergari buruzko 37/2013 Foru Araua, 51. artikulua). Kopuru hori 2019ko ekitaldiko zergaren aitorpenean aplikatutako kenkariari dagokio. Erreserba hori ezin da erabili gutxienez bost urtez, kenkariari dagokion zergaldia amaitzen denetik aurrera, kapitalari gehitu zaion igoeraren zatian izan ezik. Enpresak 51. artikuluan ezarritako eskakizunak bete ditu, eta, beraz, erreserba hori 2025eko ekitaldian borondatezko erreserbetan birsailkatu da.

